

1. Zer da zelula? Aukeratu erantzun zuzena.

- ☐ Izaki bizidun guztien oinarrizko osagaia, bizirik dagoen unitaterik txikiena da.
- ☐ Gizaki guztien oinarrizko osagaia.

2. Ze motatako izaki bizidunak bereizten ditugu, haien zelula kopuruaren arabera?

- | | |
|---|--|
| ☐ Zelulabakarrak | ☐ Pentazelularrak |
| ☐ Bizelularrak | ☐ Heptazelularrak |
| ☐ Trizelularrak | ☐ Zelulaniztunak |


3. Hutsuneak bete:

Izaki bizidunek hiru _____ betetzen dituzte:
_____, _____ eta _____.

4. Lotu gezen bitartez:

Harreman-funtzioa	Hazteko eta energia lortzeko behar dituzten substantziak eskuratzen dituzte.
Nutrizio- funtzioa	Ondorengo berdin edo antzekoak izaten dituzte.
Ugalketa- funtzioa	Ingurunetik informazioa jasotzen dute, eta informazio horri erantzuteko gai dira.

5. Hau animali zelula bat da. Kokatu bakoitza bere tokian.



Zitoplasmak zelularen zati handiena hartzen du. Urak eta ur horretan disolbatuta dauden substantzia ugariak osatzen dute.

Mintza zelula inguratzen eta kanpoaldetik bereizten duen estalkia da.

Organuluak zitoplasman daude. Mota askotako organuluak daude, eta bakoitzak funtzio desberdin bat betetzen du.

Nukleoa zelulak ondo funtzionatzeko aginduak ematen dituen atala da.

6. Zer ezberdintasun daude animali zelula eta landare zelulen artean?

	Animalia-zelula	Landare-zelula
Forma		
Tamaina		
Pareta		

Orokorrean, landare-zelulak **handiagoak** dira, eta forma **erregularragoa** dute, normalean, forma prismatikoa.

Mintzaren kanpoaldean **pareta** zurrun bat izan ohi dute. Horri esker, landareek nolabaiteko zurruntasuna eskuratzen dute, eta lurretik gorantz hazteko gai dira.

Kloroplasto izeneko organuluak dituzte. Klorofila dutenez, kloroplastoak berdeak dira, eta horietan egiten da fotosintesia.

Zelulak oso txikiak dira, baina tamaina desberdinak dituzte. Gainera, zelula motaren arabera, forma ere desberdina da: esferikoa, prismatikoa, izar-formakoa, laua...

Zelula batzuek forma sinpleak dituzte --esferikoak edo lauak dira--; beste batzuen formak, aldiz, konplexuagoak dira, adibidez, batzuek luzakinak dituzte.

Pareta: ez.

Pareta: bai.

7. Izaki bizidunak zenbat erreinutan banatzen dira?

8. Gezien bidez elkartu.

Protistoen
erreinua

Zelulaniztunak dira, eta
beren elikagaia fabrikatzen
dute

Landareen
erreinua

Zelulaniztunak dira,
eta elikagaiak hartu
behar dituzte.

Onddoen
erreinua

Elikagaiak hartu behra
dituzte, eta ez dira
lekualdatzen.

Animalien
erreinua

Protozooek elikagaiak
hartzen dituzte; algek,
aldiz, beren elikagaiak
fabrikatzen dituzte.

Bakterioen
erreinua

Izaki bizidunik txikienak
eta sinpleenak dira.